

Triangeluak

Ipuin laburra

Egilea: Marija Makeska

(Marguerite Merington)



Itzultzailea: Itziar Otegi Aranburu

bestehitzak
||| |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



drugizborovi
||| |

Luk izugarri matematikazalea zen, eta hamabi urte besterik ez zituen. Lepo beteta zeukan logela forma geometrikoz eta matematika eta trigonometria formulaz, bai eta aeroplanoz ere, eta hormetako margo urdina han-hemenka altxatzen ari zen, posterrak etengabe jarri eta kendu aritzen zelako. Ez zen ume antisoziala, lagunekin inoiz jolasten ez diren horietakoa; aitzitik, lagun ugari zituen, baina lagunik onena neska bat zuen, Emma. Erlazio erabat platonikoa zen, hartzaindegi garaian hasitakoa, eta zenbait garaitan biki banandu ezinen modura jokatu izan zuten. Ez bata ez besteak ez zuten anai-arrebarik, batzuetan «neba» eta «arreba» esaten zioten elkarri. Antza ere bazuten, kontuan hartuta ez zirela benetan senide.

Luk eta Emma Leeuwarden izeneko hiri zahar ederrean bizi ziren —edo Ljouwert-en, frasierazko izenez—, zeina kanalez beteriko leku paregabea baitzen, edertasun bakanekoa. Formei erreparatzea maite zuenez, Luk aspaldi ohartua zen Leeuwarden berezia zela; izan ere, munduko forma geometrikorik sinpleena, triangelua, monumentu orotan baitzegoen: zubietan, eraikinetan, baita bere ikastetxean ere, non Bigarren Hezkuntzako ikasle baitzen.

Martxoa izango zen, udaberria hurbil zela, eta ikastetxe inguruan gripe epidemia gori-gori zebilela, Luk gaixotu zenean. Hain zegoen ondoezik, ezen hainbat egunez ezin izan baitzuen ohetik jaiki. Luken amak, guraso bakarra izanik, malabarismoak egin behar izan zituen laneko eta amatasuneko eginbeharrei erantzuteko. Semearen gripea ikaragarri nekagarria zitzaion, eta erabaki zuen, Lukek ahaztu egiten baitzuen beti botika hartzea, sendagilearenera eramango zuela, gripeak okerrera egin baino lehen. Haatik, botika hartuagatik ere gripeak ez zuen alde egiten, eta Lukek hiru aste oso eman behar izan zituen ohean. Emmak maiz egiten zituen sartu-aterak Luki etxerako lanak ekartzera, baina ez zen luze geratzen, birusa ez harrapatzearen. Azkenean, hirugarren astearen amaieran, Luken irakasleak deitu zuen ikastetxetik, eta Matematikako azterketa egiteko eskatu. Ama kontra egiten saiatu zen, baina ikastetxeak tinko eutsi zion bereari. Lukek azterketa egitera joan behar zuen, eta kito.

Bidegabea zirudien oso, hainbeste eskola-egun huts egin ondoren, ikastetxera joanaraztea, zertara eta azterketa bat huts egitera. Denbora mordoa igaro zuen ohean, temperatura neurtu eta pilulak irentsi besterik egin gabe. Baina, gauzak zer diren,

ikastetxera joan behar zuen goizean, hobeto sentitu zen. Medikua, zeina amaren laguna baitzen, beti ari zitzaion galdezka zer moduz zegoen, eta gogor saiatzen zen bizimodu osasungarriaren etsenplu ematen. Lukek ez zuen zalantzarik egin, eta, egun hartan deitu egin zion, goizean goiz.

—Gaur hobeto sentitzen naiz. Atzo ondo jan nuen, lo ere ondo egin dut, eta orain ikastetxera joateko prestatzen ari naiz.

Telefono finkoaren kable luzea atzetik tiraka eramanez, bere armairua zabaldu eta praka batzuk, kamiseta bat eta kirol-jertse bat hartu zituen, eta jantzi eta sukaldera joan zen telefonoa aldean eramanez. Ohi baino kementsuago, Luken amak hozkailua ireki eta ogitarteko bat egin zion bizkor. Luk, beste ezeri erreparatu gabe, mahaian eseri eta gosaria irensten hasi zen, elkarrizketari eutsiz.

—Matematika azterketa bat egitea nahi dute. Irakasleak ez dit egun bat bera ere utzi eguneratzeko. Ama saiatu zen tutorearekin hitz egiten, baina hala ere ez didate utzi azterketa geroago egiten. Zergatik ez? Ez dutelako nahi etxerako lanetan atzeratuta geratu nadin. Hilabete denbora luzea da etxean gaixorik egoteko... Milesker, mediku. Bale, datorren astean azalduko naiz amarekin, txeko bat egitera. Aio.

Telefonoa eskegi, azken gosari-mokadua hartu, bizkar-zorroari heldu eta aterantz abiatu zen arrapaladan.

—Gero arte, ama!

—Ez ahaztu bazkaria!

Aterantz joan zen korrika, ogitartekoa eramateko. Luk tupustean gelditu zen, aterantz itzuli, eta ogitartekoa bizkar-zorroan sartu zuen.

—Ez hurbildu gehiegi inorengana, aditzen?

—Bai, ama —esan zuen. Baina ezerk ez zion galaraziko Emma ikustea.

Eskola-txirrinaren soinu zaharkituak korridorean barna jotzearekin batera, irakasleak azterketa orriak banatu zituen. Parean pasatu eta bizkarra eman orduko, Lukek mingaina atera zion atzetik, hain begiramen gutxirekin azterketa egitera behartu zutelako haserrea adieraztearren. Klasekideek barre isil batez eskertu zioten pailazokeria. Orduan, mahai gainean zuen azterketa orriari begiratu zion. Pitagorasen teoremari buruz zen guztia, forma baten bolumena kalkulatzear, alde guztien luzera zehatza, hipotenusaren karratua. Ez zegoen bertan hura azaldu zutenean, eta, nahiz eta logelako hormetan

formula horien posterrak izan, inork ez zion sekula irakatsi formula horiek nola erabili. Erlojuari begiratu zion. Goizeko hamaikak eta laurden ziren. Ingurura begiratu, eta begiak ohar-kaierari lotuta ikusi zuen irakaslea, pentsamenduetan murgilduta. Hurrena, Emmaren azterketan jarri zuen begirada. Ondoan eserita zeukan, baina beste mahai batean. Emma konturatu zen eta azterketa jiratu zuen, hobeto ikus zezan. Lukek baiezko sotil bat egin zion, eta Emmaren erantzunak kopiatzen hasi zen. Hamaikak eta hogeita bost ziren.

Irakasleak begiak jaso, eta, ikusirik Lukengandik apur bat hurbilegi zegoela Emma, esan zuen: «Emma, azterketa orrian jarri behar zenuke arreta, ez auzokoarengan». Emma jiratu eta ondo eseri zen, jakinik irakasleak ez-gainditua jarriko ziola esandakoa egiten ez bazuen. Lukek bere azterketa orrira jaitsi zituen begiak. Pailazo altu bat marraztu zuen, triangelu formako jaka bat soinean zuela, eta gero izen bat idatzi zuen: Joker. Hamaikak eta berrogei ziren. Pare bat ikaslek azterketak entregatu zituzten. Lukek marrazten jarraitu zuen. Hamaikak eta berrogeita zortzi ziren. Ikasle gehiagok entregatu zituzten azterketa orriak. Luk ziur zegoen ez zuela azterketa gaindituko, eta orria entregatzea erabaki zuen. Burumakur atera zen ikasgelatik. Emma atzetik joan zitzaion.

—Zer gertatu da? Ez al duzu ezer ikasi?

—Ezin izan dut. Oso sukar handia izan dut.

Luk sarrera nagusirantz abiatu zen.

—Orain lagun zaitzaket, nahi baduzu —esan zuen Emmak larri, haren atzetik korrika irtenda.

—Berandutxo. Baina eskerrik asko hala ere.

Etsipen-putzu batean hondoratuta zegoen, eta handik atera beste nahirik ez zuen. Emma korridorean geratu zen, nola urruntzen zen begira. Orduan txirrinak jo zuen, eta klasera joan behar izan zuen.

Luk joan egin zen, baina ez etxera. Hirian zehar ibili nahi zuen, norabait joan, inorako bidean alderrai ibili. Udaberria nabaria zen airean: kale artistak gogotsu zebiltzan hiri erdigunean, ikusleak erakartzeko ahalegin betean; musikariek ere aldarteak piztuta zuten, bai eta kafetegi eta jatetxeetan otorduan ari zirenek ere. Bideak Princehof Parkera eramanean zuen, eta han egon zen eserita, bakarrik, txoriei begira nola zebiltzan kantuan eta hegialak harrotzen; uraren soinua aditzen eta ondotik pasatzen zirenei begira. Bat-batean,

betidanik ezagutu izan zuen doinu klasiko bat aditu zuen. Pieza erromantiko sutsu bat zen, «Danubio urdina» izenekoa. Musikariarengana hurbildu zen; zubi baten gainean eserita zegoen, bakar-bakarrik, biolina jotzen. Hamalau urte inguruko neska bat zen, eta aurpegi zikina eta jantzi kirasdunak zituen. Tapaki bat zeukan sorbalda ingurua estaliz. Eskale bat zen. Ederki jotako doinu haren azken uneak gozatzeraz gelditu zen Luk. Amaitu orduko, «Danubioko amodioa» jotzeari ekin zion neskak, eta Luki keinu egin zion kaxan txanpon bat utz zezan. Lukek begiratu egin zion, arrotasunez, hotz, baina hala ere musikan interesaturik.

—Gustatzen zait zure doinua —esan zion.

Neska eskaleak jotzen jarraitu zuen, isil eta irmo, arreta osoa musikan jarrita. Neskaren aurrean lurrean zetzan kaxa hutsari begiratu zion Lukek, eta airea usnatu zuen.

—Usain txarra duzu. Ez nuke inondik ere txanponik botako zure kaxara —esan zion. Joateko asmoz harrotasunez jiratu zelarik, neskak begiratu makur bat bota zion, eta, istantean, paper zati batez bola zimurtu bat egin eta Luki jaurti zion bizkarrera. Ondoren, jotzeari ekin zion berriro, ezerk asalatu ez balu bezala, arreta osoa jarriz musikan. Luk zakar jiratu zen, baina neskak ez ikusiarena egin zion geroztik. Urruntzen ari zelarik, neskak begiratu arin bat bota zion, eta atseginenez ikusi zuen arkatz marka bat, puntu zuri batez inguratua, Luken berokiaren bizkarrean.

Lukek ez zuen aldaketarik nabaritu bizkarraldean, baina puntu zuria azkar ari zitzaion hedatzen. Etxera iritsi zenerako, bizkar-zorroa astunegia zitzaion eta erortzen utzi behar izan zuen, sarrerako atea igaro orduko. Bere besoei begiratu zien: zuri-beltzeko marrazki bizidun baten beso bihurtzen ari ziren! Itsumustuan bainugelara joan zen, «zuritasun» hura garbitzeko asmoz, baina blai egitea besterik ez zuen lortu! Paper bihurtzen ari zen. Ispilu aurrean egon zen, babesgabe, garrasika, aurpegia nola zuri-beltz bihurtzen zitzaion begira. Ile-lehorgailua hartu eta botoia sakatu zuen, baina istantean besoak kontrolik gabe astintzen hasi zitzaizkion, aire-korronte bortitzak eraginda. Senak bultzatuta atzerantz jauzi egin zuen, geratzen zitzaion azken indar apurraz baliatuta, eta aterantz abiatu zen. Une hartantxe, ordea, amaren giltza-hotsa entzun zuen sarrailan. Kolpean paretaren kontra jarriz ezkutatu zen, bizkar-zorrotik urrundu gabe. Amak atea zabaldu eta sukaldera joan zen; eskuko poltsa eta erositako elikagaiak uzten ari zela, Lukek ate atzetik jauzi egin zuen, eta bizkar-zorroaren barruan desagertu.

Bizkar-zorroak soinu arin bat egin zuen, amaren arreta erakartzeko adinakoa.

—Luk? Etxean al zaude? —hots egin zion. Inguruak begiz miatu zituen. Aurpegi irribarretsu bat agertu zen han gertuko Post-it batean, eta, ondoan, hitz hauek: «Emmarenean nago, ikasten». Jiratu, eta oharra hartu zuen, bekozkoa apur bat ilunduz. «Ez zukeen inorengana gehiegi hurbildu behar...», pentsatu zuen. «Hala ere, ezin diot galarazi. Etxerako lanak egin behar ditu».

Lukek arkatza utzi zuen, eta idatzi berri zuen oharraren azpian geratu zen, arnasaldi sakon batzuk hartuz.

Bere buruari begiratu zion. Paperaren dimentsioan zegoen, non den-dena paperez, tintaz eta arkatzez egina baitzen. Urrats batzuk egin zituen paper zatiaren gainean, zer gertatzen zen ikusteko asmo hutsez. Jira-biraka ibili zen, arin, pisurik gabe. Espazio hartan ibili zen, kanpoan balebil bezalaxe. Hiru triangeluren aldera joan zen, gainetik saltatu zituen, eta handienaren gailurrera igo zen. Irribarre egin zuen, eta, bat-batean, behera jauzi egin zuen berriz, «IUUUUUUU!» oihukatuz.

T hizki luze bat marraztu zuen hatzez, hizkiari besoetatik heldu eta dantza egin zuen harekin. Urrunean jotzen ari ziren «Errusiar balsa» piezaren doinuari erreparatu gabe, oharkabean erritmo hari lotu zizkion bere urratsak. Gero, bat-batean, hizkia besoen artean estutuz, burua atzerantz bota eta barre-algara axolagabe bat bota zuen.

Une hartantxe, ate bati erreparatu zion, zeinak «IREKI NAZAZU» baitzioen. Ez zegoen giltzarik, P hizkia baino ez, eta hura hartu eta atea zabaltzeko erabili zuen. Atea zeharkatu zuen, eta, istantean, hutsune batean behera amildu zen, eta gero eta gehiago hondoratu.

Kaxa baten gainean erori zen, dena triangeluz egindakoa. Balantza eginez zutitu zen, eta ingurura begiratu zuen, artega. Beste kaxa batetik, Matematika azterketan marraztu zuen Jokerra atera zen, besoak astinduz eta problemak ebatziz. Luki begiratu zion eta, haren itsumustuko etorrerari erreparatu gabe, esan zion:

—Esango al zenidake zein den 26ren kosinua?

Luk begira geratu zitzaion, zurtuta.

—Bale, ulertzen dut —esan zuen Jokerrek—, ez zara matematikaria.

Kaxatik atera eta airean zehar ibiltzeari ekin zion, modu jakin batean zenbatuz. Bat-batean, Lukengana jiratu zen berriz.

—Zaude! Zuk ez duzu triangelu itxurarik.

Luk zur eta lur zegoen artean ere.

—Joker naiz, bide batez. Problema-ebazlea. Nongoa zara zu, buru obaleko mutiko hori?

—Leeuwarden —erantzun zuen Lukek, ahots ahulez.

—Ljouwert? Gure hirikoa? Nahi nuke handik ibili eta kolore betean ikusteko aukera banu! —bistakoa zen Joker harriturik zegoela beste dimentsiotik etorritako bisita hura zela eta.

—Zer esan nahi duzu? Ljouwert kolorez beteta dago.

—Arrazoa, bai, kolorez beteta dago, baina koloreen dimentsioko gizakiek eta animaliek soilik ikus ditzakete.

—Non nago? —galdetu zuen Lukek, artean ere balantza apur bat eginez bere oinen gainean.

—Zure matematika problemetan.

—Ez dut ulertzen.

—Esan dudan bezala, zure matematika problemen barruan zaude —errepikatu zuen Jokerrek, egonarri handiz.

—Non da hori?

—Tira, zatoz nirekin eta jakingo duzu.

Joker aterantz abiatu zen, aldi berean eskuekin zenbatzeari eta oharrak idazteari utzi gabe. Luk presaka abiatu zen haren atzetik, eta atea zabaldu zuen. Argi zuri indartsu batek distira egin zuen atalasearen beste aldetik, eta Luk argitasun hartan murgildu zen.

Ingurura begiratu zuen, harriduraz beteta. Marrazki bizidunetako hiri batean zegoen, den-dena triangeluz egindakoa! Jendea triangelu formakoa zen, autoak triangelu formakoak ziren, eta baita eraikinak ere.

—Joker, zergatik da Ljouwert dena triangeluz egina? Eta zergatik da zuri-beltza? Non daude kolore guztiak? —galdetu zion Lukek.

—Esan dudan bezala, gauzak ez dira berdin hemen eta koloretako dimentsioan.

Luk ohartu zen triangelu guzti-guztiek matematika formula bat zeukatela gainean idatzita. Auto bakoitzaren atzean ageri zen zenbat erregai kontsumitzen zuen, zenbateko abiadaz igarotzen ziren hodeiak, zenbat bero ari zen sortzen eguzkia, zenbat pisatzen

zuen pertsona bakoitzak, zenbateko abiadaz zebilen, eta abar. Milaka formula, nonahi. Formulaz erabat inguratuta zegoen Luk.

—Uau! Zuzen zaude, Joker —Lukek kalerantz jarraitu zion Jokerri—. Bide batez, zergatik esaten dizute Joker?

—Galdera ona. Munduan diren kalkulu guzti-guztiak egiten ditudalako.

—Orduan, zergatik ez zinen laguntzera etorri nire Matematika azterketan marraztu zintudanean?

—Zuk marraztu ninduzun? Umm... Baina ni betidanik egon izan naiz hemen. Baziren triangelu batzuk beren aldeen luzera kalkulatzeko eskatzen zidatenak, eta haien bolumena ebazteko. Beno, triangeluen teoriak sinpleak dira. Munduan den-dena triangeluz egina da. Ulertzen duzu?

—Tira, gutxi gorabehera bai, uste dut.

Joker horma baten ondoan gelditu zen. Arkatz bat hartu, eta azaltzeari ekin zion.

—Hau errektangelu bat; zatitu dezakezu...

—Bi triangelutan.

—Halaxe da. Eta bi triangelu horiek zatitu ditzaket...

—Beste triangelu mordo batean.

—Triangelu oro zatitu daiteke bi triangelu angeluzuzenetan, eta, ondoren, aldean luzerak kalkula ditzakezu, Pitagorasen teorema erabiliz.

—Horixe bera esan zidan Emmak! Joan egin behar dut, eta problemak ebatzi, orain! Oi, ene, ezin dut. Irakasleak bihar emango dizkigu notak! Nola atera naiteke matematika liburutik, Joker?

—Ezin izango duzu sekula atera! —erantzun zuen Jokerrek. Barre histeriko bat egin zuen, zerbait ezkututzen ariko balitz bezala, eta kalean behera ibiltzeari ekin zion berriz, formulak egiaztatuz eta zuzenketak eginez akatsen bat aurkitzen zuen bakoitzean. Lukek jarraitu egin zion, aldez jakin-minak bultzatuta, aldez ez zekielako bestela zer egin.

Joker Princehof Parkera joan zen, uraren soinuari adi, eta txoriei, zuhaitzei, pasaeran gurutzatzen zuen edozeri. Berriz ere, biolin-musika entzun zitekeen urrunean. Joker zubirantz hurbildu ahala, Lukek melodia ezagutu zuen. Bere doinu klasiko kuttuna zen, «Danubio urdina».

«Zergatik ezin dut besterik gabe liburutik atera?», esan zuen Lukek bere artean. Jokerrek entzun egin zion, eta gaia aldatu zuen.

—Musika! Ez al da zoragarria? Musika eta matematikak elkarrekin doaz, anai-arrebak bezala. Musikak adimentsuago egiten zaitu, eta matematikak ulertarazten dizu munduan den oro musikari lotua dela!

Jokerrek neska eskalea musika jotzen ari zen zubira eraman zuen Luk. Lukek berehala ezagutu zuen neska.

—Agurtu ezazu Constance; bera dugu inspirazio! —esan zuen Jokerrek, eserita zegoen biolin-jolea seinalatuz.

Luken bihotzak taupada bat huts egin zuen. Bistan zen amarruz erakarri zutela berriz hara, neska umiliatu zuen lekura.

—Kaixo —esan zuen, burumakur.

Neska eskaleak doinu amorratu bat jo zuen.

—Nola jakin duzu lehen topo egina nuela? —galdetu zion Lukek Jokerri, nahasirik.

—Leeuwarden zure dimentsioan baino ez da koloretakoa, ezta?

Tupustean, neska eskaleak jotzeari utzi zion. Lukek ez zuen jakin zer esan, eta isilune deseroso bat sortu zen.

—Jo ezazu doinu polit bat, Constance —esan zuen Jokerrek, isiltasuna apurtuz.

Neska eskalea jotzen hasi zen berriz,aldi hartan doinutxo ezagun, grazios bat hautatuta: Strausen «Annen Polka». Luk bere buruarekin haserre zegoen. Joker, ordea, olgetan zebilen musikaren erritmora, irribarre zabal bat aurpegian, ume baten modura.

—Sentitzen dut, Constance... Ez nekien zu... zera zinenik...

Neska eskaleak jotzeari utzi zion tupustean, berriz ere.

—Sentitzen dut, benetan —errepikatu zuen Lukek.

Luken desenkusari jaramonik egin gabe, neska eskalea doinu karrankari, guztiz desatsegin bat jotzen hasi zen, zeinak zubia eta inguruko eraikin guztiak dardarka jarri baitzituen, eta kanalean olatu handiak harrotu eta oinazpian zuten lurra bera ere astindu.

—Mesedez, lagundu etxera itzultzen —eskatu zion Lukek, lehen baino irmoago.

Constancek ez entzunarena egin zion, eta jotzen jarraitu zuen. Bere erreguek erantzunik ez zutela ikusita, Jokerrengana jiratu zen Luk, zeina apur bat urrundua baitzen, Lukek harengana iristeko pare bat minutuz korri egin behar izateko beste.

—Joker, nora zoaz?

—A, zu zara, berriz ere.

Joker Lukengana jiratu zen, buru-belarri matematika problemak ebazteari eutsiz.

—Itxaron! Ez nauzu nahi hemen? Bat-batean erabat bakarrik sentitu zen Luk, nahiz eta jaka triangeluarraz jantzitako irudi haren ondo-ondoan egon.

—Lanpeturik nabil —erantzun zuen Jokerrek.

—Zergatik zabilta horrela, noraezean?

—Ez nabil noraezean. Hiriko kalkuluak egiaztatzen ari naiz.

—Kalkuluak? Zergatik?

—Ama Lurri egoeraren berri ematen diot, eta Izadiaren lau indar oinarrizkoak oraindik ere orekan daudela ziurtatzen.

—Nahi nuke esaten duzuna ulertu ahal banu.

Jokerren hitzak Luken irismenetik at zeuden oso.

—Ulertuko duzu, egunen batean —erantzun zion Jokerrek, artean ere zenbatuz.

—Tira, gutxienez, esango zenidake nola erantzun azterketan hutsik utzi nituen galderak?

Ez zuen erantzunik izan. Luk zain geratu zen, egonarriz, Joker astiro-astiro nola urruntzen zen begira. Gero, Luk ezustean harrapatuz, jiratu, eta «Estutu garuna» esan zion. Lukek buruan hazka egin eta une luze batez geldi-geldi egon zen, triangeluei begira. Gero ideia bat bururatu zitzaion.

Zazpi eta erdiak ziren ordurako. Emma eroso eserita zegoen bere gelako idazmahaiaren aurrean, pijama soinean, eta Matematikako etxerako lanak egiten ari zen. Bat-batean, aurpegi irribarretsu bat agertu zitzaion matematika liburuan.

—Emma!

Emma leihorantz jiratu zen. Iluna besterik ez zegoen kanpoan. Gortinak zertxobait mugitu ziren, gaueko aire fresko apur bat barrura gidatuz.

—Emma! Neu naiz, Luk. Begira, badakit ez dakizula non nagoen, eta ez nauzula ezagutuko, baina entzun nazakezu, badakit.

Emmak berriz ere ingurura begiratu zuen, jakin-minez. Altxatu eta leihoa itxi zuen.

—Zure mate liburuan nago, Emma.

Irekita zeukan matematika liburua orrietara begiratu zuen Emmak. Lukek irribarre egin zion, aurpegi irribarretsu zuri-beltz baten bidez.

—Ze demontre?! —atzerantz jauzi egin zuen Emmak, izuturik.

—Badakit zail egiten zaizula begien aurrean duzuna sinestea, baina neu naiz, Luk.

—Erre egingo dut mate liburua! —esan zuen Emmak, ia oihuka.

—Ez, arreatxo, neu naiz, benetan. Mate liburua erretzen baduzu, desagertu egingo naiz, eta ezin izango dituzu etxerako lanak egin. Entzun minutu batez, mesedez.

—Ez dut ulertzen. Nola egon zaitezke hor barruan?

—Ez dakit, baina hementxe nago. Begira, hemendik atera beharra daukat, eta zuk beste inork ezin dit lagundu.

Une hartantxe, telefonoak jo zuen. Emmak hartu zuen.

—Bai?

—Kaixo, Luken ama naiz. Jakin nahi nuke Luk hor ote dagoen. Gaur ez dit deitu eta arestian ohar bat utzi dit, zure etxera zihoala, ikastera.

—Nor da? —galdetu zuen Lukek, xuxurlaka.

—Zure ama —erantzun zion Emmak, era berean. Gero telefonotik mintzatu zen—. Bai, hemen dago. Gogor aritu da ikasten, eta orain erdi-lo dago.

—Pasatu naiteke hortik, eta jaso.

—Oraindik ez ditugu Mateko etxerako lanak bukatu —aise esan zion gezurra Emmak, Luki begirik kendu gabe—, eta ziurrenik gau osoa beharko dugu. Nire ama hemen ibiliko da goizean, ez duzu zertan kezkatu.

—Hitz egin al dezaket berarekin une batez?

—Esan baietz —xuxurlatu zion Lukek. Emmak liburua ganean jarri zuen telefonoa—. Kaixo? Bai, ama, ondo nago. Kuluxka bat egiten ari nintzen —aharrausi bat itxuratu zuen—. Etxerako lanetan egunean jarri behar dut, besterik ez... Milesker, ama. Maite zaitut.

Luken amak telefonoa eskegi zuen. Emma zurtuta zegoen artean ere.

—Zeu zara benetan.

—Begira, Emma, mesede handi bat eskatu behar dizut. Eramango al nauzu irakaslearen mahaira bihar, zure liburua Mateko azterketen gainean jarri, eta bost arte zenbatu? Egingo al didazu mesedea? Arren...

Emmak baiezkoa egin zuen.

Biharamun goizeko 10:30ean, atsedendian, Emma matematika gelara joan zen, eta bere matematika liburua irakaslearen mahaian utzi zuen, azterketa orrien gainean. Bost arte kontatu zuen, agindu bezala; gero, liburua hartu, eta bere lekuan eseri zen. Irakaslea sartu zenean, Emma bakar-bakarrik ikusita, bekozkoa apur bat ilunduz galdetu zion ea zergatik ez zegoen kanpoan, lagunekin hamaiketako jaten.

—Ez naiz gose. Hemen itxarongo diedala pentsatu dut.

Irakasleak azterketa orriak hartu zituen, eta notak jartzen hasi zen. Luk barruan zen ordurako. Emmaren azterketan zenbakietako batzuk zuzendu zituen, eta gero bere azterketan matematika problemen erantzunak idazteari ekin zion. Konturatu zen bere gainean orriak nahiko azkar ari zirela desagertzen. Azkarrago jardun zuen, azterketa berandu baino lehen amaitu nahian. Juxtu-juxtu lortu zuen Jokerren marrazkia ezabatzea eta azken problemaren erantzuna zirriborratzea, irakasleak beraren azterketa orria hartu zuenean. Ez zuen alde egiteko astirik, eta tupustean aurpegi irribarretsu baten itxura hartu zuen, idatzi berri zuen erantzunaren ondoan.

Irakasleak nota gorena jarri zion azterketan, azken orrian 10 handi bat idatzi, eta irribarre arin bat egin zuen aurpegitxo ikustean. Gorritz margotu zuen, eta azterketa orria utzi, azpikoz gora jarrita. Luken irribarrea goitik behera erori zen.

Hasi zen eskola-ordua. Emmak Luken azterketa jaso zuen, berearekin batera. Bere azterketari begiratu zion aurrena, eta sinetsi ezinik geratu zen begira. Hamar atera zuen! Gero Luken azterketari begiratu zion, eta haren aurpegi irribarretsu koloreztatua ezagutu zuen. Tinta gorria ezabatzen saiatu zen, baina irakasleak bolalumaz margotua zuen. Azkenean, sorbaldak goratu eta amore eman zuen. Luken hazpegi marraztuek frustrazioa adierazi zuten. «Eraman nazazu zubira eta aurkitu neska eskalea. Lagundu hemendik ateratzen», idatzi zuen. Emmak baiezkoa egin zuen, arin, begiak irakaslearengana itzuli aurretik.

Ikastetxetik irten ondoren, Emmak zubian aurkitu zuen Constance. Neska ikustera heldu baino askoz lehenago entzun zuen «Danubio urdina» jotzen ari zirela urrunean.

Hurbiltzen ari zela, doinuz aldatu eta «Danubioko amodioa» jotzen hasi zen biolin-jolea, eta keinu isil bat egin zion, txanpon eske. Une batez entzuten egon zen Emma, eta gero txanpon bat jaurti zion kaxara. Neska eskaleak ez ikusiarena egin zion, eta doinu zoragarri hura jotzen jarraitu zuen. Emma ez zen mugitu. Beste txanpon bat jaurti zuen. Constancek eskerrak eman zizkion buruko keinu batez, eta «Errusiar balsa» jotzeari ekin zion. Emma entzuten egon zen. Hirugarren txanpona bota zion, eta Constancek Tchaikovskyren «Loreen dantza» jo zuen. Emma kanalerantz jiratu zen, eta beherantz begiratu, ur-korronte triangeluarraren eta paseoan zebilen jendearen aldera. Atzera Constance entzutera jarri zen, zeina bere musikan erabat murgilduta baitzegoen artean ere. Emmak Luken azterketa orria erakutsi zion, eta aurpegi gorri goibela seinalatu. Laugarren txanpona jaurti zuen kaxa barrura. Constancek jotzeari utzi zion. Emma zain geratu zen, hark zer esango.

Azkenean, hitz egin zuen.

—Hartu txanponak eta sartu zure poltsan.

Emmak kuxtari begiratu zion. Berak botatako lau txanponak baino ez zeuden han. Zalantzati, makurtu, txanponak hartu, eta poltsan sartu zituen. Constancek doinu alai bat jotzeari ekin zion, «Vienako balsa» izenekoa. Emmak biolin-jole gaztearengan jarrita izan zituen begiak, astiro-astiro zubitik atzerantz urruntzen zelarik. Luze gabe, bere bizkar-zorroa gero eta handiagoa eta astunagoa egiten hasi zen. Espaloiairen gainean utzi zuen Emmak. Bizkar-zorroaren goialdean paper-zorro bat zabaldu zen, eta Luken buru gorria agertu zen aurrena, eta, ondoren, gainerako guztia. Emmak zurtuta begiratu zion hasieran, baina gero irribarre egin zuen, errotuladore urdin bat hartu, eta bere masailak margotu zituen. Une batez Constancek biolina nola jotzen zuen begira egon ziren, eta gero elkarrengana jiratu eta saltoka eta dantzan hasi ziren, musikaren erritmora.

Luken etxera iritsi zirenean, ur azukretua edaten aurkitu zuten haren ama, aurpegia hits eta malkoz betea.

—Non ibili zara azken bi egun hauetan? —galdetu zion amak.

Lukek besarkatu egin zuen.

—Misio garrantzitsu batean izan naiz —erantzun zuen, eta gero bere azterketa orria erakutsi zion—. Joan al naiteke jolastera orain?

Amak barre egin zuen, lasaituta, eta baiezkoa egin zuen. Luk eta Emma korri batean igo ziren Luken gelara, kolpean atea zabaldu, eta seko geratu ziren bertan, begien aurrean zutena sinetsi ezinik. Izan ere, hantxe, beren aurrean, Joker baitzegoen, kolore betean, zinta metriko batez Luken gela neurtzen.

—Ederra da dena hemen kanpoan, koloretako munduan —adierazi zuen—, baina gauza gehiegi dago neurtzeko!